



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 9a

92. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2012ko urriaren 24an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetuko dela, Erregelamenduko 152. eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2012ko abenduaren 5ean eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa

ZIOEN AZALPENA

1

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VII. titulua aldatu zuen martxoaren 17ko 4/2011 Foru Legeak lehen xedapen gehigarrian ezartzen du:

“2012ko irailaren 30a baino lehenago, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, non arautuko baitira Nafarroako toki entitateen mapa eta antolamendua; proiektu horrek errespetatu beharreko printzipioak izanen dira subsidiaritatearena, eskumenen argitasunarena, finantza-nahikotasunarena eta lurralde-elkartasunarena. Legearen nahitaezko ezarpena gauzatu aurretik, toki entitateek epe labur bat izanen dute legeko aurreikuspenak bere borondatez onartzeko.

Lege proiektu horrek, betiere, Nafarroako toki entitateen mapa bat edukiko du, zeinaren egitura-mailetan jasota egonen baitira kontzejuak, udalak, zerbitzu administratiboetarako batasunak eta udalez gaindiko bestelako entitateak.”

Testua ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioan egin gogo den erreforma horretan kontuan hartu beharreko jarraibide hauek aletu ditzakegu:

– Printzipio hauek bete beharra: subsidiaritatea, eskumenen argitasuna, finantza-nahikotasuna eta lurralde-elkartasuna.

– Legearen aurreikuspenak nahitaez ezartzea, borondatez onartzeko epe bat eman ondoren.

– Erreformaren egitura-mailetan jasotzea “kontzejuak”, “udalak”, “zerbitzu administratiboetarako batasunak” eta udalez gaindiko bestelako entitateak.

Bestetik, araua egiteko agindu horren aurrekari kronologikoak aztertuta, esan daiteke, ondorio gisa, arau horren bidez Nafarroako Toki Administrazioaren erreforma egin nahi dela, hartara helburu hauek lortzeko:

– Tokiko zerbitzuak kudeatu eta emateko lanak hobetu eta arazoizkoagoak egitea, egungo toki egiturak antolatuz.

– Herritarrek ahalik eta zerbitzu berdinenak modu berdinenean jaso ditzaten lortzea.

– Nafarroako Toki Administrazioaren administrazio eta eginkizunen mapa lurraldeari dagokionez antolatzea.

2

Nafarroako Toki Administrazioaren egungo egituraren eragiteko foru lege honetan proposatzen diren jarduketa ildoek aukera ematen dute proposatutako erreformaren ezaugarriak zehazteko, alegia, lurraldean antolatutako plangintza bat izanen dela esateko, aurreikuspenak pausoz pauso eta gidatuta ezarriko dituen; hala dela egiaztatu daiteke, indarra duen antolamenduan ageri diren entitate guztiei buruzko zehaztapen hauetan:

a) Egun dauden 272 udalerrriak mantentzea, herritarrek afera publikoetan parte hartzeko bide nagusia diren aldetik. Halere, udalek beren borondatez bat egin dezaten sustatzeari utzi gabe, eta horretarako legez aurreikusitako gainerako zioei eutsiz, udalen arteko kudeaketa-egituretan sartzearen alde eginen da, horretarako pizgarriak emanez edo behartuz, bizilagun kopuruan edo lurralde elkartasunean oinarritutako irizpideen arabera; azken finean, horren guztiaren xedea da egitura horiek sortzea justifikatzen duten tokiko zerbitzuak emateko modua arazoizkoa izatea, ahalik eta eraginkortasun eta berdintasun handienak lortuz.

Helburu horiekin bat, nahitaezko zerbitzuak ematek salbuesteko aukera desagertu da, eta udala azkentzeko kausen artean ezarri da hautagai-zerrendarik bat ere ez aurkeztea bizilagunen interesak zuzendu eta administratzeko hauteskunde prozesuetan.

b) 1990ean sortutako “administrazio barrutiak” direlakoek ez dute arrakastarik izan, udalek ez dutelako halakorik sortzeko ekimenik abiatu, bategik, eta bestetik, “zerbitzu administratiboetarako batasunak” eratu dira, elkartutako udalen kudeaketarako gaitasuna hobetzeko eta Nafarroako Lurralde Estrategiaren azpierzemuei dagozkien jardun-esparruan zerbitzuak batera emateko tresna gisa; horrenbestez, barruti horiek desagertzeko proposamena egin da, antzekoak diren figurak

bikoiztea saihesteko, Nafarroako Toki Administrazioaren antolaketa politiko administratiboan egin gogo den sinplifikazioarekin eta egituren antolamenduarekin bat etorriz.

c) Egungo 348 kontzejuen izaera instituzionalari eustea, erreformarako araua egiteko aginduari eta foru berezitasunaren defentsari jarraikiz, ez da oztopo izan haien egungo araubide juridikoan aldaketa hauek proposatzeko:

– Kontzejuen funtzionamendua, kontzeju irekieren araubidekoa, legez egokitzea.

– Orain arte kontzejuek esleituak izan dituzten zenbait eskumen udalaren esku uztea, hainbat arrazoiengatik: lege mailakoak, nortasunekoak eta horiek betetzeko ahalmenekoak.

– Legez esleiturik ez dituzten beste eskumen batzuk betetzeko, subrogatzeko edo eskuordetzeak onartzeko legezko aukera kentzea; salbuespen gisa, egun indarra duten hitzarmenak luzatzeko baimena eman ahal izanen da.

– Kontzeju berriak eratzeko aukera legez ezinezko egitea.

– Kontzejua azkentzeko kasuei beste hauek gehitzea: deitzen diren hauteskunde prozesuetarako hautagai zerrendarik ez egotea, kasuan kasuko udalerrian desoreka egotea populazioan, eta betebeharrak administratiboak behin eta berriz ez betezea.

– Ekonomia, aurrekontu eta finantza arloetan udal kontu-hartzaileak aholkularitza emanen duela xedatzea.

d) Zehaztuta gelditu da tradiziozko batasunetik zein diren toki entitate, eta, horrez gain, toki eskumenak betetzeko aukera mugatu zaie batasun horiei, soilik administrazio organoetako kide guztiak udal hautetsiak dituztenek izanen baitute.

Era berean, haien tradiziozko izaera errespetatuz betiere, haien lurralde esparrua kide direnena bera denean, batasun horiek baliatu ahal izanen dira kasuan kasuko jardun-esparruko berrantolaketa administratibo eta eginkizunena gauzatzeko entitate instrumental gisa.

e) Foru lege bidez sortutako udal batasunen figurak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 46. artikuluan aurreikusirik dagoen moduan, arauan islatzen du Nafarroako Foru Komunitateak duen eskumen bat, alegia, udalek osatutako toki mailako entitateak sortzeko, sortzean bertan zehazten diren toki izaerako zerbitzuak batera emateko xedearekin.

Batasun bat sortzeko foru lege bat onetsi beharra, berez, aski arrazoi bada ere hura justifikatzen duten kausak eta lurralde, erakunde eta eskumen esparruaren ezaugarri orokorrak edo zehatzak zehazteko, figurari beste lege izaera bat emateak posible eginen du arau-tresna gisa erabiltzea, egungo mankomunitateetan erreforma honen bidez egin gogo den lurralde eta eginkizun berrantolaketarako prozesua, borondatezkoa eta bideratua, horretarako egokitzat eta egingarritzat jotzen den epean burutzen ez den kasuan.

f) Zerbitzu administratiboetarako batasunak beharrezko eta nahitaezko tresna dira toki entitateetan behar diren idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak betetzeko sistema antolatzeko, bai eta biztanle gutxi dituztenei kudeaketa gaitasuna emateko, haien interesetarako egokia dena.

Nafarroako Lurralde Estrategiaren azpieremuak izanen lirake udalen arteko kudeaketa-egitura horien osaketa instituzionalaren esparrua, baina hori ez da oztopo izanen Nafarroako Gobernuak horrelako egiturak foru dekretu bidez sortzea erabakitzeke, behin betiko eratu arte behin-behineko ezaugarri emanik, legez aurreikusitako egoeretan eta jardun-esparru bakoitzean ukitutako udalei kontsulta eginda.

g) Zerbitzu finalistak emateko gaur egun dauden 67 elkarte-entitateen kasuan, haien berrantolaketarako pizgarriak eman eta sustatzeko proposamena egin da, "interes orokorreko mankomunitateak" eratzeko, kopuruz sei, irizpide hauek oinarri hartuta: lurraldetasuna, eginkizun aniztasuna eta berdintasuna mankomunitatutako zerbitzuak ematean.

Egin nahi den berrantolaketa horretarako Nafarroako Gobernuak onesten duen Plan Zuzentzailearekin bat, Nafarroako Lurralde Estrategiaren eremu baten edo batzuen esparruan, eratzen diren mankomunitateek hartuko dute interes orokorreko mankomunitatearen izaera, eta haien xedea izanen da haien esparruan ematea, gutxienez, foru lege honek indarra hartzen duen unean, batera emateko helburuaz, mankomunitate edo hitzarturik dauden udal eskumeneko zerbitzu guztiak; nolana ere, hasieran hartutako eskumen edukia aurrerago zabaldu ahal izanen da.

Bestetik, Iruñeko konurbazioa Iruñerriko Mankomunitatearen lurralde esparruaren barruan dagoela iritzirik, ez da zentzuzkoa egitura gehiago ezartzea tokiko zerbitzuak kudeatzeko ordezkari-tza eta gobernu organo desberdinak ezarriz lurralde esparru berean, kontuan hartuta Iruñerriko Mankomunitateak berak, borondatezko erakundeenez onarpen zabala duen aldetik, ahalmen osoa

duela bere antolaketarako, Iruñeko konurbazioaren udalen behar berariazko erantzuteko eta, bide-nabar, bere jardun-esparruko gainerako udaletan zerbitzuak ematen segitzeko, bai udal mankomunitateek borondatez eskuordeturikoak bai estrategikoki bere gain har ditzakeenak.

h) Halaber, izaera desberdinetako Administrazio Publikoek soilik osatutako partzuergo entitateei toki entitate funtzionalaren edo 2. mailako toki entitatearen izaera emateko proposamena egin da; soilik udal eskumeneko nahitaezko zerbitzuak emateko eratu beharko dira, zerbitzu horien konplexutasun tekniko eta neurri ekonomiko direla eta, Nafarroako Lurralde Estrategiaren eremuak baino handiagoak diren jardun esparruak behar badituzte, edo zerbitzuen titularrek horiek emateko gaitasunik ez dutelako, Nafarroako Gobernuak esku-hartzea komeni edo behar delarik.

3

Beste alde batetik, agerikoa da beharrezkoa dela Nafarroako toki entitateen errealtate ekonomikoa eta aurrekontuen arlokoa ebaluatzea, bai eta errealtate horretan Toki Administrazioa finantzatzeko sistemaren beharrezko aldaketak izan dezakeen eragina ere, finantzaketaren kopuruari begiratuta nahiz banaketa kualitatiboari, erreformak egituretan eta eskumenetan izanen dituen emaitzak eta tokiko zerbitzuak emateko kostuez egin beharreko azterlana kontuan harturik.

Nafarroako Toki Administrazioa finantzatzeko egungo ereduak hurrengo bi urteetan indarra izanen duela aurreikusirik, eta ahaztu gabe Nafarroako toki entitateen berrantolaketarako proposamenak pausoz pauso ezartzen joanen direla, horiekin bat egitea garrantzia handikoa dela, eta onespenarako ahalik eta adostasun handiena lortu beharra dagoela, atzeratu eginen da toki finantzaketaren sistemaren behin betiko ezaugarriak zehazteko lana; nolana ere, foru lege honetan sistema horren oinarri beharko luketen printzipio eta irizpideak finkatu, eta kontzejuen eskumenen berresleipenarekin bat datorren araubide iragankorra aurreikusi da.

Lehenengo artikulua. Legearen xedea, eragin-eremua eta edukia.

1. Foru lege honen xedea da ezartzea zein diren Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioaren berrantolaketa agindu behar duten oinarriak, betiere printzipio hauekin bat: subsidiaritatea, eskumenen argitasuna, nahikotasun eta iraunkortasun finantzarioa, aurrekontu-egonkortasuna, lurralde-elkartasuna eta itzulezintasuna.

2. Foru lege honek Nafarroako toki entitateen egitura berria ezartzen du, bai eta hura osorik eta erabat ezartzeko prozedurak eta denbora programazioa ere, hartara Foru Komunitaterako toki mapa berria taxutzeko.

3. Aurreikusitako toki entitateetako bakoitzerako foru lege honetan ezartzen dena betetzea eta unean unean indarra duten legezko arauekin bateragarri egitea Nafarroako Parlamentuaren esku-mena izanen da, behar diren lege-arauak aldatuz, eta Nafarroako Gobernuari dagokio, berriz, errege-lamenduz garatzea.

Bigarren artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 3. artikulua aldatu da eta honela gelditu da idatzirik:

“3. artikulua.

1. Udalez gain, honako hauek ere Nafarroako toki enteen izaera dute:

a) Kontzejuek.

b) Nafarroako Errege Bardeako Komunitateak, Aezkoa Ibarreko Komunitateak, Erronkari Ibarreko Mankomunitateak eta Zaraitzu Ibarreko Unibertsitateak.

c) Foru lege bidez sortutako udal batasunek.

d) Zerbitzu administratiboetarako batasunek.

e) Mankomunitateak.

f) Toki partzuergoek.

2. b) letran jaso ez diren tradiziozko batasunek zuzenbide publikoko entitatearen izaerari eutsiko diote beren usadiozko eginkizunak betetzeko, baina ez dira toki entitateak izanen.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak foru lege honi jarraikiz gaurkotuko ditu horretarako sortutako toki entitateen erregistroko inskripzioak, bertan adieraziz erregelamenduz ezartzen diren datuak.”

Bi. 14. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“14. artikulua.

1. Udal berriak sortuko dira, soilik, lurraldez bereizirik dauden populazioguneak oinarri hartuta eta, betiere, sortutako udal horiek behar adinako baliabide baldin badute udal eskumenak betetzeko, ordura arte emandako zerbitzuen kalitatea okertu gabe.

2. Udalak azkentzeko arrazoia izanen da hau-tagai zerrendarik ez aurkeztea unean unean indarra duen Hauteskunde Araubide Orokorra arautzen duen legeria betez onesten den edozein hauteskunde prozesutan, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita.

Arrazoi hori dela eta azkentzen den udalaren aldaketa gauzatzeko, mugakide den beste udalerritan sartuko da, betiere Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 17. artikuluan horretarako ezarritako prozedurarekin bat; Nafarroako Gobernuari dagokio espedientea irekitzea eta ebaztea. Kasu horretan, ez da aplikatuko foru lege horren 19. artikuluan xedatutakoa.”

Hiru. 30. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“30. artikulua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak eta beste toki entitate batzuek udalei eskuordetu ahalko diete, Estatuko oinarritzko legerian ezarritakoarekin bat, beren interesak ukitzen dituzten gaietako eskumenez baliatzea, betiere baldintza hauekin: horren bidez kudeaketa publikoaren eraginkortasun eta efizientzia nahiz zerbitzuak emateko modua hobetzea, administrazio bikoizteak kentzeko lagungarria izatea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeriarekin bat etortzea, eta herritarrek afera publikoetan parte-hartze handiagoa izan dezaten laguntzea.

Eskuordetzeko erabakiak haren eragin-eremua, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta eskuordetzea egiten duen Administrazioak beretako gordetzen duen kontrola, zerbitzuak nola betetzen diren kontrolatu eta zuzentzeko ahalmenak, eta, halakorik dagoenean, eskualdatzen dituen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak. Kasu guztietan, eskuordetzeak atxikirik izanen du eskuordetutako zerbitzua edo zerbitzuak emateko behar adinako finantzaketa ere; horretarako, eskuordetzea egiten duen administrazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako dituen aurrekontuetan zuzkidura egon beharko da, behar bestekoa eta egokia.

2. Udalek beraien eskumenak edo eman beharreko zerbitzuen kudeaketa eskuordetu ahal izanen dizkiete 3.1.b) artikuluan aipatutako tradiziozko batasunei, zerbitzu administratiboetarako batasunei eta kide diren mankomunitateei. Eskuordetzeko erabakiak haren eragin-eremua, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta eskuordetzea egiten duen Administrazioak beretako gordetzen duen kontrola, eta, halakorik dagoenean, eskualdatzen dituen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak; kasu guzti-

etan, eskuordetzeak atxikirik izanen du behar adinako finantzaketaren eskuordetzea ere, aurreko idatz-zatian ezarri bezala.

3. Eskuordetzea eraginkorra izateko, udalak, zerbitzu administratiboetarako batasunak edo mankomunitateak onartu beharko dute.”

Lau. 31. artikulua 3. eta 4. idatz-zatiak kendu dira, eta artikulua testu hau izanen du:

“31. artikulua.

1. Nafarroako udalek, zeinek bere aldetik edo elkartuta, legeria orokorrean gutxienezkotzat ezartzen diren zerbitzuak eman beharko dituzte. Auzotarrek eskubidea izanen dute zerbitzu horiek ezarri eta eman daitezela eskatzeko.

2. Beren lurralde esparruaren barnean kontzejuak dituzten udalerrietan, aurreko idatz-zatian aipatutako zerbitzuak kasuan kasuko udalek eman beharko ditu, zerbitzu horiek ez badira lege hone-tan holako kontzejuen esku utzitako gaien inguru-koak.

Bost. 32. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“32. artikulua.

1. Ehun biztanle baino gutxiagoko udalek jardunen dute kontzeju irekiaren araubidean, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz jardun ere, Toki Araubidearen Oinarriak eta Hauteskundearen Araubide Orokorra arautzen dituen eta unean unean indarra duen legerian ezarriak diren kasuetara mugatuta.

2. Kontzeju irekiaren araubidean, udalaren gobernu eta administrazioa alkateari -hauteskunde legeetako zehaztapenekin bat hautatua- eta hautesle guztiek osatutako auzotarren batzarrari dagozkie.

3. Bertan horretarako usadio, ohitura edo tradizio-rik izan ez bada, ondoko arau hauetara moldatuko dute beren funtzionamendua:

a) Alkateari dagokio udala ordezkatzea, eta oro har, udaletan alkateak dituen eskudantziak ere.

b) Alkateak batzorde bat izendatu ahalko du, gutxienez bik eta gehienez lau kidek osatutakoa, bere eginkizunetan laguntzeko eta kanpoan edo gaixorik dagoenean, izendapen ordenaren arabera, bere ordez aritzeko. Batzorde hori, halaber, alkateak edo auzotarren batzarrak haren gain utzitako eskudantzien jabe ere izanen da.

c) Herritarren batzarrari dagozkio udaletan osoko bilkurak bere gain dituen eskudantziak.

d) Auzotarren batzarrean osagarri gisa aplikatuko da toki araubideko legeriak udalaren osoko bilkurarentzat ezarrita duen jarduteko araubidea.”

Sei. 33. artikulua edukia osorik kendu da.

Zazpi. 38. artikulua aldatu da. Hona testu berria:

“38. artikulua.

1. Kontzejuen gobernu eta administrazioa kontzejuburu batek eta batzar edo kontzeju ireki batek eramanen ditu.

2. Kontzejuburua eta batzarkideak gehiengo bidez hautatuko dituzte kontzejuko egoiliar izan eta kontzejuari dagokion udalaren hauteskundeetako erroldan sarturik daudenek, kontzejua dagoen udaleko hauteskundeetan botoa emateko eskubidea dutela. Hautatzeko eguna udal hauteskundeena bera izanen da.

Hautagai izateko eskubidea izanen dute botoa emateko eskubidea aitortua dutenek, aurreko leerroaldean xedatutakoarekin bat.

3. Kontzeju irekia eratuko da 16 biztanletik 50era bitarteko populazioa duten kontzejuetan, eta funtzionamendua lege honen 32. artikuluan 100 biztanletik beherako udaletarako ezarritako bera edo baliokidea izanen da.

4. Batzarburuak zuzenduko du batzarra, zeina buruak berak eta lau batzarkidek osatuko baitute.

Batzarburuak izendatuko du bera kanpoan edo gaixorik dagoenean ordezkatuko duen batzarkide.”

Zortzi. 39. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“39. artikulua.

1. Kontzejuen kudeaketa eta administrazio organoei dagokie ondoko arlo hauei buruzko esku-menak betetzea:

a) Ondarearen administrazioa eta kontserbazioa, bai eta haren aprobetxamendua eta erabilera antolatu eta arautzea.

b) Bere mugapeko landa bideen mantentze eta zaintza lanak, baita kontzejuaren interesekoak baizik ez diren erabilera eta zerbitzu publikorako gainerako ondasunena ere.

c) Hilerrien mantentze eta zaintza lanak.

d) Kontzejuaren artxiboa.

e) Bertako festak.”

Bederatzi. 42. eta 43. artikuluen edukia kendu da.

Hamar. 44. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“44. artikulua.

1. Kontzejuak kasu hauetan azkenduko dira:

a) Auzotar egoiliarren gehiengoaren idatzizko eskaeraren bidez, udala entzun ondoren.

b) Biztanleen kopurua hamaseitik beherakoa izateagatik, edo, nahiz eta horretara iritsi, gutxienez hiru famili unitate ez izateagatik.

c) Kontzejuaren gobernu organoak eskatuta, kideen legezko kopuruaren bi hereneko gehiengoak hartutako erabakiaren bidez.

d) Hauteskundeak arautzen dituen foru legeria betez onartzen diren hauteskunde prozesu bakar batean hautagai-zerrendarik ez aurkeztea, Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera.

e) Mila biztanletik gorako kontzeju bateko populazioa kide den udal osokoa baino handiagoa denean; kasu horretan, udalaren izen ofiziala aldatuko da, eta berria udalaren azken izenak gehi azkendutako kontzejuarenak osatuko dute.

f) Behar edo komenigarritasun ekonomiko edo administratiboko arrazoi agerikoak daudenean edo betebeharrak administratiboak behin eta berriz betetzen ez direnean.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio, Lurralde Mugaketako Batzordeak txostena eman ondoren, kontzejuen azkentzea dekretatzea. Azkentzeari buruzko foru dekretua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Estatuko Administrazioari igorriko zaio, Toki Entitateen Erregistroan inskribatzeko.”

Hamaika. 45. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“45. artikulua.

1. Foru lege honen 3.1.b) artikuluan aipatzen diren toki entitateen antolaketa, funtzionamendua, eskumenak eta diru baliabideak, arautuko dira legez ezarrita dituzten erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunen bidez.

2. Beren eskumenekoak diren gaitan, udalei onartutako ahalmen eta prerrogatibak izanen dituzte, ondoko berezitasun hauekin:

a) Zergen gaineko ahalmena Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituzten legeetan aitortzen zaizkien zergak ezartzekoa izanen da soilik, horien barne betiere, zerbitzuak eman edo jarduerak

egiteagatiko tasa edo prezio publikoak ezartzea eta kontribuzio bereziak jartzea.

b) Desjabetzeko ahalmena, nahitaez okupatu beharreko ondasunak zein udalerritan dauden, hango udalak izanen du, edo Foru Komunitateak, ondasunak udalerrri batean baino gehiagotan badaude; udal batasunak eskaturik eta honen onurarako erabiliko dute ahalmena.

3. Artikulu honetan deskribatutako tradiziozko batasunek bere gain hartu ahal izanen dituzte, eskuordeturik, zerbitzuak eman edo jarduerak betetzeko udal eskumenak, betiere haien gobernu eta administrazio organoetako kide guztiak udal hautetsiak badira.

Era berean, haien tradiziozko izaera errespetatuz betiere, haien lurralde esparrua kide direnena bera denean, batasun horiek entitate gisa baliatu ahal izanen dira, zerbitzu administratiboetarako batasunak sortuz egin gogo den berrantolaketa administratiboa eta eginkizunena gauzatzeko.

4. Berariazko xedapenik ezean, haien diru araubidea, aurrekontuak osatu, kontuak eman, likidazioak, inbentarioak eta balantzeak egiteari buruzkoan, udalenzat erabakitakoari lotu beharko zaio.”

Hamabi. 46. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“46. artikulua.

1. Nafarroako Foru Komunitateak foru lege bidez sortu ahal izanen ditu udal bat baino gehiago biltzen dituzten entitateak, sortzean zehaztuko diren udal eskumeneko zerbitzuak batera emateko xedez.

2. Foru lege honetan taxutu diren interes orokorreko mankomunitateak eratzeke epea iraganik, Nafarroako Gobernuak, ukitutako udalen ekimena izan beharrik gabe, Nafarroako Parlamentura igorriko ditu legezko udal batasunak sortzeko behar diren arau proiektuak, helburu horrekin onetsi zen plan zuzentzailean identifikatutako interes orokorreko mankomunitateen kopurua adina proiektu, alegia. Entitate berrien osaketa instituzionala, eskumenak, eta jarduteko eta antolatzeko sistema foru lege honetan eta aipatutako plan zuzentzailean ezarritakoaren arabera izanen dira.

Hamahiru. 46. bis artikulua gehitu da. Testu hau izanen du:

“46. bis artikulua.

1. Zerbitzu administratiboetarako batasunak sortzea.

Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez eta foru lege honetan aurreikusitakoari jarraikiz sortuko ditu zerbitzu administratiboetarako batasunak, Nafarroako Foru Komunitateko udalen administrazioa berrantolatzeke tresna izanen diren toki ente gisa.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko epean gehienez ere, plan zuzentzaile bat prestatuko du, eta bertan bilduko ditu berrantolaketarako proposamenak, bai eta plan horretan berean identifikatutako zerbitzu administratiboetarako batasunek izanen dituzten ondorioak ere, antolaketaok nahiz ekonomikoak; xedea izanen da entitate horien eraketa eta funtzionamendua planifikatu eta programatzea. Ukitutako udalei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari plana emanen zaie kontsultarako, eta Lurralde Mugaketako Foru Batzordeari eta Toki Araubideko Foru Batzordeari, txostena egiteko, hiru hilabetez; ondoren, Nafarroako Gobernuak erabakiz onetsiko du.

Nafarroako Gobernuak, aurreko lerroaldean aurreikusitako plan zuzentzailea behin onetsirik, borondatez onartzeko hiru hilabeteko gehieneko epea emanen du, udalek iradokizunak egin ditzaten batasun bakoitzerako proposatutako osaketa instituzionalari eta eskumenei dagokienez; ondoren, batasunak sortzeko foru dekretuak onetsiko ditu, planean identifikatutako bakoitzerako bat, batasunak eratu eta jardunean jartzeko behar diren lege, finantza eta antolakuntzako aurreikuspenak horietan araututa.

2. Zerbitzu administratiboetarako batasunen ezaugarriak.

Zerbitzu administratiboetarako batasunen ezaugarriak hauek dira: toki entitateak dira, izaera instrumentalekoak, udal bat baino gehiago biltzen dituztenak, funtsezko xede batekin, alegia, hura osatzen duten udalen administrazio zerbitzuak, behar diren idazkari eta kontu-hartzaile eginkizunak betetzetik datozenak, batera eman eta mantentzea; eragina dute bai eginkizun publiko horiek betetzen dituzten langileengan bai horiei laguntzen dietenengan ere; Orobat, kasuan kasuko batasuneko kideek berriaz erabakitzen dituzten aholkularitza teknikorako gainerako zerbitzuak ere eman eta mantenduko dituzte.

Era berean, beste eskumen batzuetatik datozen zerbitzuak ematea eta betetzea har dezakete bere gain, udalek eskuordetu ondoren, foru lege honen 30. artikularekin bat, edo entitateak sortzeko foru dekretuan onetsitako estatutuetan jasotako oinarriko xede soziala zabaldu ondoren.

Zerbitzu administratiboetarako batasunak mugakide diren udalen artean sortuko dira, mugaketarako kontuan hartuz, hasiera batean behintzat, Nafarroako Lurralde Estrategiaren 40 azpierenak. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak onetsitako Plan Zuzentzaileak ondoko inguruabarrak kontuan har ditzake entitate horien mugaketarako, aipatutako lurraldea erreferentziatzen hartu gabe eratzeko arrazoi izan daitezkeen aldetik:

a) Ukitutako udalak sarturik egotea lehenagotik, borondatez edo legez, sortutako batasun batean, tokiko funtzio publikoa betetzeko behar diren lanpostuei eusteko.

b) Aipatutako 40 azpierenuetako bakoitzean kokaturik dauden udalerrietako biztanle kopuru desberdinak.

c) Jarduketa esparruan idazkaritza eta kontu-hartzailetza eginkizun publikoak betetzeko izendatutako funtzionarioek lehenagotik duten egoera juridikoak.

d) Antolaketa aldetik komenigarri izatea, aipatutako lurraldeko beste azpieren edo eremu batzuetako udalerririk mugakideen kokapen geografikoa dela eta.

Edozein kasutan ere, onesten den plan zuzentzailearen arabera sortutako zerbitzu administratiboetarako batasunak behin eratuta, Nafarroako Gobernuak dekretatu ahal izanen du kasuan kasuko azpierenmuko gainerako udalak batasunean sartuz joan daitezela, hasierako konfigurazioa justifikatu zuten inguruabarrak gainditu ahala.

Halaber, helburu berarekin lehenagotik sortu edo eraturik dauden entitateetako udalen artean zerbitzu administratiboetarako batasunak eratzeak lehenagoko horiek desegitea ekarriko du eta, batasuna sortzeko foru dekretuari jarraikiz, bertan sartzea funtzionarioak eta langile finkoak, entitate berria sortzea justifikatu zuen xede sozialarekin bateragarriak diren eginkizunak dituzten lanpostuak betetzen dituztenak une horretan. Modu berean jokatu da batasun batean sartutako udaletako langileekin.

3. Entitatearen antolaketa eta funtzionamendurako araubidea.

Zerbitzu administratiboetarako batasunak sortzea onesten duten foru dekretuetan entitatearen antolaketa eta funtzionamendurako araubidea jasoko da, berdina entitate guztietan, eta bertan honakoak adieraziko dira: izena, herri burua, batasuneko kide diren udalak ordezkatzeko dituzten gobernu organoen osaketa, eraketa eta funtzionamendua, esleitutako eskumenak eta baliabide ekonomikoak, bai eta aplikatzekoak zaizkien ahal-

menak ere, eta entitatearen jardunbide egokirako beharrezkotzat jotzen diren alderdi guztiak.

Batasunaren herri burua izanen den udala zein den zehazterakoan, funtzionaltasun irizpideei begiratuko zaie, hala nola zeinek duen biztanle kopururik handiena edo zein den batasuneko udalerrien artean erdigunetik hurbilen dagoena.

Entitatea sortzeko foru dekretuan aurreikusirik ez dagoen guztian, zerbitzu administratiboetarako batasuneko batzarraren funtzionamendua udalen osoko bilkuretarako ezarritakoak aginduko du; organo betearazle bat dagoen kasuan, berriz, Tokiko Gobernu Batzorderako ezarritakoak.

4. Entitatearen eraketa prozedura.

Zerbitzu administratiboetarako batasun bat sortzeko foru dekretua argitaratu eta hilabeteko gehieneko epean, batasuneko kide diren udalek beraien ordezkariak izendatuko dituzte; bi hilabeteko gehieneko epean, berriz, entitatea eratzeko batzarrerako deia egingen da, eta batasuneko kide den eta biztanle kopuru handiena duen udalerrian une horretan idazkari lanak betetzen dituenak gidatuko du bilkura. Ordezkariak izendatu gabe baldin badaude, edo batzarra eratzeko behar den quorumik ez badago, Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu kideak, izendatutako udal ordezkariekin batera entitatearen eraketa eta kudeaketa organo gisa jardun dezaten trantsizio egoera horrek dirauen bitartean.

Batasuna eratzen denetik bere plantilla organoan jasotako lanpostuetarako langileak kontratatu eta/edo jabetza hartzeko hautapen prozedurak burutu arte, batasunak ez ditu bere xede diren zerbitzu administratiboak emanen.

Denbora tarte horretan, zerbitzu administratibo horiek emateko batasuneko udalek lehenagotik formalizatuta zituzten kontratuek indarra izaten segituko dute, non ez diren lehenagoko egituretako langile guztiak sartzeko batasun berrian; aipatutako kontratuak denbora tarte hori bukatzearekin batera amaitu eta/edo suntsiaraziko dira.

Hamalau. 53. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“53. artikulua.

1. Mankomunitateen berrantolaketa.

Nafarroako Gobernuak, lurraldetasun, eginkizunen aniztasun eta berdintasun irizpideetan oinarrituta, “Interes orokorreko mankomunitateak” era daitezten sustatu, bultzatu eta pizgarriak emanen ditu; mankomunitate bakoitza bere lurralde esparruko udalek osatuko dute, foru lege hau onesten denean udal eskumeneakoak diren zerbitzuak,

batera emateko helburuaz, mankomunitate edo hitzartuta dituztenek eta, ordura arte zerbitzuak banaka eman ondoren, eskumena mankomunitateari eskuordetzen diotenek ere.

Ondorio horietarako, Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta sei hilabeteko gehieneko epean plan zuzentzaile bat eta txosten ekonomiko bat prestatuko ditu, egun dauden mankomunitateetako udalak interes orokorreko sei mankomunitateetan sartzeko prozesua planifikatu eta programatzeko helburuaz. Hauek dira sei mankomunitate horiek, Nafarroako Lurralde Estrategian oinarritutakoak:

– Erribera: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 1. eremuko udalerriek osatua.

– Erdialdea: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 2. eta 5. eremuetako udalerriek osatua.

– Lizarrerria: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 3. eta 4. eremuetako udalerriek osatua.

– Zangoza-Pirinio aldea: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 6. eta 7. eremuetako udalerriek osatua.

– Bidasoa-Sakana: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 8. eta 9. eremuetako udalerriek osatua.

– Iruñerria: Nafarroako Lurralde Estrategiaren 10. eremuko udalerriek osatua.

Plan hori egungo mankomunitateen partaidezarekin egingen da, eta ukitutako udalei eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari emanen zaie kontsultarako, baita Lurralde Mugaketako Foru Batzordeari eta Toki Araubideko Foru Batzordeari ere, txostena egin dezaten; ondoren, Nafarroako Gobernuak erabakiz onetsiko du.

Nafarroako Gobernuak, aurreko idatz-zatian aurreikusitako plan zuzentzailea onetsi ondoren, hura garatu eta betearazteko behar diren lege, finantza eta antolaketa neurriak sustatuko ditu.

2. Interes orokorreko mankomunitateak.

Interes orokorreko mankomunitateen xedea da kide dituen udalek haren gain utzitako zerbitzuak profesionaltasunez, eraginkortasunez eta efizientziaz ematea bere esparruko populazio osoari; horrekin batera, herritarren bizi kalitatea hobetzeko, beraien iritziz, eman behar dituzten gai guztiez ere arduratuko dira, bermatuz, betiere, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna, eta bikoizte administratiborik ez sortzea.

Lehenago aipatutako plan zuzentzailearekin eta foru lege honetako zehaztapenekin bat eratutako interes orokorreko mankomunitateen helburua, izaera atzerazinekoa, hauxe izanen da: zer-

bitzuak ematea, foru lege hau onesten den egunean mankomunaturik dauden udal eskumenekoak, gutxienez.

Interes orokorreko mankomunitateek bere gain hartu ahal izanen dituzte, halaber, beste gai batzuetako zerbitzuak eman eta betetzeko eginkizuna, udalek eskumenak eskuordetu ondoren, foru lege honen 30. artikularekin bat.

Interes orokorreko mankomunitatearen deklarazioa Nafarroako Gobernuak eginen du foru dekretu bidez, hura sustatzen eta osatzen duten udalek proposatuta; lehentasuna izanen dute Nafarroako toki ogasunek zergetan parte hartzeko funtsak banatzean, bai transferentzia arrunten arloan bai kapital transferentzien arloan.

3. Interes orokorreko mankomunitateak eratze-ko prozedura.

Interes orokorreko mankomunitateak eratzeko ekimena haien erreferentziazko esparruetan sartutako udalena izanen da, udal eskumeneko zerbitzuak, batera emateko helburuaz, foru lege honek indarra hartzen duenean mankomunaturik edo hitzarturik dituzten udalena edo banaka ematen dituzten udalena. Horretarako, eta plan zuzentzaile hori onetsi eta hiru hilabeteko gehieneko epean, udalek, foru lege honen 49. artikuluan ezarritakoarekin bat, interes orokorreko mankomunitatea eratze-ko prozedurari ekiteko erabakia hartu beharko dute.

Interes orokorreko mankomunitatearen estatutuen onespina foru lege honen 50. artikuluan ezarritako arauak aginduko dute. Estatutuen proiektuarekin batera, txosten bat aurkeztu beharko da, egun dauden mankomunitateen egoera - lege, antolakuntza, eginkizun eta ekonomia aldetik- eta horiek interes orokorreko mankomunitate berriaren esparruan ematen dituzten zerbitzuak deskribatzen dituena, eta, halaber, mankomunitate berria eratu eta jarduteko eta zerbitzuak emateko egin beharrekoaren programazioa eta kronograma. Nafarroako Gobernuak laguntza tekniko eta ekonomikoa emanen du interes orokorreko mankomunitateak eratze-ko prozesuan.

Interes orokorreko mankomunitate bat eratzeak berarekin ekarriko du bere esparruan dauden mankomunitateak desagitea, aipatutako 50. artikuluko 3. idatz-zatian horretarako ezartzen den prozedura bete beharrik gabe. Era berean, udalak mankomunitate berrian sartzeari ekarriko du; desgindakoen eskubide eta betebeharretan subrogatuko da berria, eta haien plantillak bere estatutuetan aurreikusitako irizpideen arabera egokituko, trantsizio epean. Egokitzen horretan, lehentasunezkoa izanen da funtzionarioak sartzeari.

Interes orokorreko mankomunitatea behin eraturik, bere jardun-esparruko udalak edozein unetan eta estatutuetan horretarako ezarritako baldintzekin sartu ahal izanen dira bertan, mankomunatatutako zerbitzuak emateko.

Edozein kasutan ere, deskribatutako sei esparru horietako bakoitzean zerbitzu mankomunatuak dituzten udalek urtebeteko epea izanen dute, foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita, kasuan kasuko interes orokorreko mankomunitatea eratze-ko prozesua burutzeko.

Epe hori iraganik, Nafarroako Gobernuak interes orokorreko mankomunitatea eratze-ko prozesua burutzeko aurreikusitako epeak luzatu ahal izanen ditu, erabakia justifikatu eta arrazoituta; bestela, foru lege honen 46.2 artikuluan ezartzen den bezala, elkartze-entitatea eratzerik izan ez duten udalerririk elkartzeko foru lege proiektuak onetsi ahal izanen ditu, Parlamentuan tramitatzeko.

4. Estatutuen araubidea.

Interes orokorreko mankomunitateen estatutuek, zerbitzuak eraginkortasun eta efizientzia handiagoz emateko, emaitzen araberrako kudeaketa eta aurrekontu sistema bat ezarriko dute, bai eta horren jarraipen eta monitorizaziorako adierazle sistema bat ere; horrez gain, zehaztapen hauek ere bilduko dituzte:

a) Mankomunitatea osatzen duten udalerririk eta jarduteko lurralde esparrua.

b) Izena, bakarra eta interes orokorreko gainerrako mankomunitateekin nahasbiderik sortzen ez duena.

c) Gobernu eta administrazio organoek egoitza duten tokia edo tokiak.

d) Helburuak, eskumenak, ahalmenak eta prerrogatibak.

e) Ordezkaritza, gobernu eta administrazio organoek buruzko arauak, haien osaketa eta eskudantziak, bai eta kideak izendatu eta kargutik kentzeko modua ere. Estatutuetan gobernu kargu pertsonalak arautzean honako jarraibideak aurreikusi beharko dira:

e.1) Batzar orokorra mankomunatatutako udalen ordezkariak, hautetsiek nahitaez, osatuko dute.

Mankomunatatutako udal guztiek izanen dute ordezkari bat gutxienez batzarrean.

Interes orokorreko mankomunitateen estatutuetan zehaztuko da mankomunatatutako udal bakoitzak zenbat ordezkari izanen duen, baina beti errespetatu beharko da udalbatzen konfigurazio politikoa.

Udal ordezkariaren botoa ponderatua izanen da beti, populazioan oinarritutako irizpideekin.

e.2) Batzarreko buruak ez du eskudantzia betearazle berekirik izanen, entitatearen ordezkaria izanen da, eta, ordeztu ezean, entitatearen gobernu eta ordezkari organoetako burua izanen da.

Batzarrak aukeratuko du, boto ponderatuaren gehiengo soilaz, hautatzeko unean alkate diren kideen artean.

e.3) Batzarreko buruordea batzarreko buruak izendatuko du alkate diren batzarreko kideen artean.

e.4) Kide anitzeko organo betearazle bat egonen da, buruak eta, entitatearen lurralde esparruan Nafarroako Lurralde Estrategiaren arabera zenbat azpiero egon, horietako bakoitzeko kide batek osatua; azpiero bakoitzean dauden udalen batzarreko ordezkariak hautatuko dituzte, azpiero bakoitzari dagokion boto ponderatuaren arabera. Mankomunitateko burua izanen da organo betearazlekoa ere, eta organo horretan bere azpiero udalak ordezkatzeko ditu.

e.5) Mankomunitateko Batzarraren funtzionamendua udal osoko bilkuretarako ezarritako berbera izanen da, eta organo betearazlearena, berriz, Tokiko Gobernu Batzorderako ezarritakoa; organo betearazlearen eskudantziak toki administrazioaren arloko oinarritzko legeriak udalbatzetako alkate-udalburuei ematen dizkienak izanen dira.

e.6) Eratutako batzarreko kideek jasoko dituzten diru ordain bakarrak dietak izanen dira, entitatearen gobernu eta ordezkari organoen bileretara joateagatik, edo kalte-ordainak karguan aritzeagatik.

e.7) Mankomunitateak, sei hilean behin, bere kudeaketaren balantzea emanen die mankomunitateko kide diren udalei.

f) Entitatearen barne arauak eta antolakuntza osagarria.

g) Entitatearen baliabide ekonomikoak eta, zehazki, hura osatzen duten udalek egin beharreko ekarpen ekonomikoak eta gainerako konpromisoak zehazteko irizpideak, bai eta horiek betetzeko arauak ere.

h) Entitatearen zerbitzuko langileen araubidea.

i) Entitateari udalak atxikitze epea, kausak eta prozedura eta, hala gertatzen denean, bereiztekoak, eta entitatea desegin eta likidatzekoak.”

Hamabost. 212. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du:

“212. artikulua.

1. Toki entitateak izaera desberdineko administrazio publikoekin elkartu ahalko dira, interes komuneko helburuak erdiesteko partzuergoak eratuz.

Halaber, partzuergoak ezarri ahalko dituzte irabazi asmorik gabeko elkarte, fundazio edo entitate pribatuekin ere, interes publikoko helburuak, Toki Administrazioaren helburuekin bat datozenak, bilatzen badituzte.

2. Partzuergoak borondatezko izaera duten elkarteak dira. Berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko ahalmen osoa duten entitate publikotzat joko dira.

3. Beren eskumeneko zerbitzuak eman ahalko dituzte, toki araubideko legeetan aurreikusirik dauden bideak erabiliz.

4. Foru lege honen 3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, toki entitatearen izaera izanen dute izaera desberdineko administrazio publikoen artean eratzen diren toki partzuergoek, soilik udal eskumeneko nahitaezko zerbitzuak emateko, horien konplexutasun teknikoa eta tamaina ekonomikoa direla-eta beharrezkoak direnean Nafarroako Lurralde Estrategiaren eremuak baino handiagoak diren esparruak, edo haien titularren gaitasun falta dela-eta beharrezkoa denean Nafarroako Gobernuak esku hartzea.

Partzuergo izaerako entitatea eratzeko prozedura, haren antolaketa eta funtzionamendu araubidea, eta hura sortzea justifikatzen duten zerbitzuak kudeatzeko moduak bat etorri beharko dira Nafarroako toki entitateei aplikatzeko zaien legeriaren aurreikuspenekin.”

Hamasei. 240.bis artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“240. bis artikulua.

Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko kudeaketa eta aholkularitzako eginkizuna:

a) Toki entitateko buruari aurrekontua prestatzen laguntzea, idazkariarekin batera.

b) Ekonomia eta finantza txosten bat prestatzea, entitatearen aurrekontuari buruzko informazio osagarriaren parte izanen dena. Txosten horretan honako hauek azalduko dira: batetik, diru-sarreraren eta aurreikusitako kreditu-eragiketen ebaluazioa egiteko erabilitako oinarriak, eta, bestetik, kredituak aski ote diren eskatu ahal zaizkion betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gas-

tuei aurre egiteko eta, horrenbestez, aurrekontua benetan berdintzeko. Kreditu eragiketei dagokienez, haien zenbatekoaz gainera, hitzartu asmo diren ezaugarri eta baldintza finantzario guztien xehetasunak adieraziko dira, eta bereziki aipatuko da entitateak duen finantza karga, hura formalizatu aurretik eta ondotik.

c) Idazkariarekin batera, aurrekontu orokorren proiektuari buruzko aurretiko laburpen txostena prestatzea, entitateko buruak Korporazioaren Osoko Bilkurari azaroaren lehena baino lehen bidaltzeko, horrek onetsi, zuzendu edo itzul dezan.

d) Exekuzio oinarrien aurretiko txostena prestatzea, gastuen aurrekontuen kargura egiten diren kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketa-aginduak emateko arauetara buruz. Bertan zehaztuko dira irizpide orokorrak, muga kuantitatiboak eta zein aurrekontu-kontzepturi aplikatu behar zaizkien.

e) Aurrekontuetako kredituen aldaketa guztiei buruzko txostena egitea, nahitaez.

f) Mota guztietako kreditu-eragiketak hitzarteko aurretiko txostena prestatzea, non toki entitateak eragiketa horien ondoriozko betebeharrak denboran aurre egiteko duen gaitasuna aztertuko baita bereziki. Toki entitatearen menpeko erakunde autonomoek kreditu-eragiketak hitzartu aurretik ere, txostena prestatu beharko da.

g) Aurreragoko ekitaldiei egotzi beharreko gastuak baimendu aurretik txostena prestatzea, baimendu beharreko urte anitzeko gastuaren ondorio ekonomiko-finantzarioei buruz eta, hala badagokio, gastu horien eta inbertsio planen eta finantzaketaren programen arteko korrelazioari buruz.

h) Toki entitatearen eta haren menpeko erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa toki entitateko buruak onetsi aurretik, aginduzko txostena prestatzea.

i) Gastuen murrizketa errebokatu aurretik txostena prestatzea, aurrekontua likidatzean diruzaintzako gerakin negatiboa baldin badago.

j) Toki entitateko buruak edo zinegotzien heren batek eskaturik, edo legez gehiengo berezi bat behar duten gaiak jorratu behar direnetan, ekonomiaren, finantzen edo aurrekontuen gaineko txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea.

k) Irizpena ematea zerbitzu berriak sortu edo daudenak berritzearen bidez kotasunari buruz, aurkezten diren proposamenen ondorio ekonomiko-finantzarioak ebaluatzeko. Eztabaidan gairen baten aurrekontu-ondorioen gainean zalantzarik sortzen baldin bada, hitz egiteko baimena eskatu

ahalgo dio entitateko buruari, Korporazioari aholku emateko.

l) Aurretiko txostena prestatzea, noiz eta, herri ekimen baten bidez, udalaren eskumenekoak diren gaiei buruzko erabaki edo jarduketan proposamenak edo xedapen orokorren proiektuak aurkezten direnean, eskubide edo betebeharrak ekonomikoetan ondorioz badute.

m) Udalerrian dauden kontzejuetako buruek ekonomia, aurrekontu eta finantzen arloan eskatzen dizkieten aholkularitza eta laguntza, unean unekoa."

Lehen xedapen gehigarria. Toki finantzabiderako sistema berrikustea.

Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat igorriko du Nafarroako Parlamentura, toki finantzabiderako sistema berria antolatu eta arautuko duena, lurraldeen arteko elkartasuna, proportzionaltasuna, udalen arteko ekintza, efizientzia, eta nahikotasun eta iraunkortasun finantzarioa printzipiotzat harturik, bat etorriko dena foru lege honen bitartez Toki Administrazioan egin gogo den berrantolaketarekin.

Finantzabiderako sistema berria taxutzeko, kontuan hartu beharko dira erreferentziako irizpide hauek:

1. Zerga eta tributuen egungo sistema egokitu da, toki egituren iraupena bermatzeko bide eman dezan, ordezkari eta partaidetza publikoaren funtsezko bidea baitira.

2. Toki Ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko funts bakarra sortuko da, Nafarroako Toki Administrazioak ematen dituen zerbitzu guztien finantzabidea izan dadin.

3. Toki ogasunek Nafarroako zergetan parte hartzeko funtsa banatzeko irizpideek helburu hauek bilatuko dituzte:

a) Foru lege honetan kudeaketarako aurreikusitako diren udalen arteko egituren sorrera eta funtzionamendua sustatzea.

b) Kudeaketarako adierazleak betetzea, zerbitzuak ematen dituen entitatearen, ematen dituzten zerbitzuen eta gauzatzen diren lurralde esparruaren arabera bereizirik.

c) Entitateek diru-bilketarako duten ahalmena eta ematen diren zerbitzuak atxikirik dituzten zerga baliabideen erabilgarritasuna.

Bigarren xedapen gehigarria. Idazkariak eta kontu-hartzaileak.

1. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 243.2c) eta 244.2c) artikuluetan adierazitako ondorioetarako, lege testu horren 53. artikuluan ezarritakoa betez eratzten diren interes orokorreko mankomunitateetan idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu bana egonen dira. Ondorio horietarako, halaber, foru lege horren 46.bis artikuluan ezarritakoa betez eratzten diren zerbitzu administratiboetarako batasunek ere lanpostu kopuru hori izanen dute beharrezkoak diren eginkizun publikoak betetzeko, non ez den komenigarritzat jotzen, mankomunitate horiek sortzeko onesten diren foru dekretuetan, eginkizun horiek batera betetzea.

2. Sortzean hutsik dauden lanpostu horiek funtzionarioen araubidean betetzeko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen VII. titulu-ko II. kapitulu-ko 3. sekzioan ezarritako prozedura erabiliko da, ahalik eta azkarren eskainiz, beste arrazoi batzuegatik hutsik geratutako gainerako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuekin batera, funtzionarioen araubidean betetzeko modukoak badira.

3. Edozein modutan ere, Nafarroako Lurralde Estrategiaren azpierrean batean elkarturik ez dauden udaletako batean dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, edozein arrazoiengatik hutsik geratzen direnak, ez dira sartuko foru lege horren 248. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen den zerrendan, funtzionario araubidean bete daitezkeen idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen zerrendan alegia, Nafarroako Gobernuak dekretatzen badu zerbitzu administratiboetarako batasun batean sartzea, foru lege honen aurreikuspenak direla eta.

Hirugarren xedapen gehigarria. Interes orokorreko mankomunitateek esleiturik dituzten zerbitzuak udalek ematea.

Zein lurralde esparrutan dauden, horko interes orokorreko mankomunitateari esleitutako zerbitzuetako bat banaka ematen segitzea erabakiz gero, udalek ezin izanen dute zerbitzu horiek emateko bestelako akordio edo hitzarmenik ezarri beraien

interes orokorreko mankomunitatekoak ez diren beste toki entitate batzuekin, Nafarroako Gobernuak baimena eman ezean.

Laugarren xedapen gehigarria. Iruñerriko Mankomunitatea.

Foru lege honek interes orokorreko mankomunitatearen izaera aitortzen dio Iruñerriko Mankomunitateari. Horretarako, estatutuak egokitu behar-ko ditu foru lege honetan zehaztapenetara, eta bere eskumenei gehitu bere lurralde esparruan beste elkarte-entitate batzuek betetzen dituzten udal zerbitzu guztiak emateko behar diren gaiak.

Bosgarren xedapen gehigarria. Kontzejuei udal eskumenak eskuordetzeko hitzarmenek indarra galtzea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, indarrik gabe geldituko dira kontzejuei udal eskumenak eskuordetzeko hitzarmenak. Aurrekoa gorabehera, salbuespen gisa eta arrazoi-turik, Nafarroako Gobernuak baimena eman ahal izanen du egun formalizaturik dauden hitzarmenek indarra izaten segi dezaten, baina inolaz ere zabaldu gabe haien edukia.

Xedapen iragankor bakarra. Kontzejuek toki ogasunen funtsean duten parte-hartzea murriztea.

Foru lege honen lehen xedapen gehigarrian aipatzen den toki finantzabiderako sistema berriak indarra hartu artean, kontzejuek Nafarroako toki ogasunen funtsean egun duten parte-hartzea, gastu arruntetarako dena, %30 murriztuko da; zenbateko hori haien udalek jasoko dute, foru lege honetan onesten den eskumen-berresleipenaren ondorioak finantzatzen laguntzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzeak.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

